

INMIGRAZIOA ETA KULTUR ANIZTASUNA

Beste herrialdeetatik datozen familien kultur aniztasunak, gurea ez besteko kulturetan familia antolatzeko gakoak zeintzuk diren jakiteko betebeharrak ezartzen dio gizarteari. Elkarrengana hurbiltze hau, gurea ez besteko familietan, gauzak egiteko modu desberdinak ezagutzeko, ulertzeko eta errespetatzeko oinarritzen da.

Etorkinak euren oinarrizko beharrei nola erantzun jakin gabe etortzen dira (bizileku-baimena, errolatzeko bizilekua edo tokiak, enplegua, osasun-asistentzia, seme-alaben eskolaratzea...) eta, nahiz eta batzuetan, behin helburu-hirian finkatuta behar horiek aldatu, prestakuntza, enplegu edota diru-laguntzen beharra izaten dute.

Hasiera batean, pertsona horiek enplegua bilatzen dute, edozein enplegu, batez ere, helmuga herrialdean geratu ahal izateko eta, gainera, sorterrira dirua bidali ahal izateko, bai migrazio-prozesuan sortutako zorra ordaintzeko, bai senitartekoei laguntzeko (are gehiago seme-alabak gurasoen, anai-arreba/neba-ahizpen edo beste senitartekoen kargura utzi badira).

Gizarte zerbitzuak, hezkuntza sailak, erakundeak eta elkarteak, izaten dira pertsona eta familia horiei helmugan finkatzeko eta harrera ona izateko babesa eta laguntza ematen dietenak, betiere, kontuan hartuta familia edota pertsona bakoitza desberdina dela herritartasunaren, familia-egituraren eta migrazio-prozesua asimilatzearen modu desberdinen arabera...; halaber, ezin dugu ahaztu badirela arreta espezializatua behar duten kolektiboak (haurrak, nagusiak, hizkuntza-desberdintasunak...).

Horretarako, beharrezkoa da familia horiek adingabeak antolatzeko, hezteko, hazteko eta baloreak transmititzeko erabiltzen dituzten gako desberdinak ezagutzea edo, bestela esanda, euren bakoitzak duen kultura eta bizimodua ezagutzea, horixe baita gure gizartean integratzen laguntzeko modu hobetiena; euren balore edo sinesmenak errespetatzea, aldi berean uneko ingurune bakoitzaren desberdinetara moldatzeko erraztasunak emanez.

Bestalde, kultur aniztasunaren barruan, kontuan hartu behar da familia bakoitza bere indargune eta ahulguneekin, testuinguruarekin, babesekin, baliabideekin eta abarrekin jotzen duela gizarte zerbitzuetara... lanean jartzerakoan, oso garrantzitsuak baitira aldagai horiek.

Egungo egoera sozioekonomikoa aldatzen ari denez eta, horren ondorioz, familiek oinarrizko beharrei erantzuteko bestelako baliabideak bilatzen ari direnez, familia immigranteek irtenbide bat aurkitzen ari dira euren sorterrietara itzulita. Familia hauek, berriz ere egokitze prozesua jasan beharko dute, testuinguru eta gizarte aldaketagatik, hasiera- eta hezkuntza-jarraibideak ere aldatuko direlako.

LABURPENA

Betidanik gertatu den faktore unibertsala dugu immigrazioa eta, gure erkidegoan duela urte batzuk nabarmen hazi zen arren, askoz ere pertsona eta familia gutxiago etortzen dira gaur egun euren herrialdeetatik gurera, sorlekura itzultzeko fenomeno gertatzen ari delako, hau da, beraien herrialdeetara bueltatzea.

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia